

ELKARRIZKETA: Ion Larrañaga, Kantauri Garbia elkarteko presidentea



Ozeanoen Munduko Eguna ospatzeko ekitaldien artean, pasa den ekainaren 11n itsas hondoaren garbiketa egin zen Mutrikuko portuan. Kantauri Garbia elkarteak antolatu zuen ekimena, Geoparkearen eta beste hamaika eragileren laguntzarekin, eta 60 bat urpekari bildu ziren bertan.

Eguna festa giroan igaro izanagatik, ez zen lantegi makala izango portuko itsas hondoa garbitzea. Zenbat zikinkeria atera zenuten?

Gure kalkuluaren arabera, tona bat zabor inguru atera genuen. Kontuan izan behar da Mutrikuko portua ez dela zikinkeria gehien jasotzen duena, bi arrazoiengatik: batetik, biztanleria gutxi herri bat da Mutriku eta, bestalde, itsas korranteak eta portuaren kokapenak laguntzen du itsasotik datorren zaborra gehiegi ez metatzen bertan.

Zein dira itsasoan aurkitzen diren zabor ohikoenak?

Itsasoan, orokorrean, jaun eta jabe den zaborra plastikoa da, botilak, poltsak, etabar. Gehienetan, beraien osotasunean eta beste askotan produktu hauek birrinduz joaten dira eta oso arriskutsuak gerta daitezke itsas biziarentzat. Beste hein handi batean, bateriak, arrantzarako sareak, sokak, itsas inguruetatik denboraleek eramaten dituzten gauzak, freskagarri latak, itsasontzien gasolina filtroak...

Zikinkeria horrek guztiak zer eragin du itsasoko landare eta animalien gain?

Zabor honek guztiak itsas landare eta animalien gain eragin bortitza dauka. Gure murgilaldietan ikusten dugu utzitako arrantza sareetan arrain pila bat gelditzen dela harrapatuta eta beraien patua bertan isil-isilik hiltzea dela. Beste arrain asko ikusten ditugu plastiko poltsa bat jan nahi izan dutenak, jateko zerbitzu delakoan.. Landare askotan ere kateatuta gelditzen dira plastikoak eta eragin zuzena dute beraien bizi iraupenean. Bestalde, eragin oso toxikoa eta kaltegarria dute bateriak, pila, gasolina filtro eta halakoek, ur kantitate beldurgarriak kutsatzen dituzte dendora luzez.



Herritarren kontzientziaziorako zer egin behar da?

Kantauri Garbia elkartetik eta beste talde askoren aldetik kontzientzia sortzeko egiten ari garena da hor ezkutuan, ur geruza baten azpian dagoen zabor eta zikinkeria hori guztia kanporatzea, jendeak ikus dezan. Oso garrantzitsua da, baita ere, ume eta gazteengan kontzientzia piztea, lanean has daitezen eta, denon artean, beranduegi izan baino lehen, egoera alda dezagun.

Horretarako, oso garrantzitsua da aktibitateak, hitzaldiak, garbiketak antolatzea eta zabalpena egitea komunikabide eta sare sozialetan. Bestalde, gero eta laguntza gehiago dugu instituzio eta horrek esan nahi du zerbitzu aldatzen ari dela.

Suscríbete a nuestro newsletter

¿Te gustaría estar al día de todo lo que pasa en Geoparkea? Suscríbete y recibirás periódicamente en tu correo electrónico nuestro boletín de noticias con los últimos eventos y noticias. Tan solo tienes que entrar en la web www.geoparkea.com y acceder al formulario de alta y rellenarlo.

web: www.geoparkea.com



Geoparkea



Geoparkea



Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura



Costa Vasca
Geoparque mundial de la UNESCO

Hezkuntza
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen
Erakundea

Euskal Kostaldeko
UNESCOren
munduko
Geoparkea



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Kalioa

LASTUR, BIZIA DUEN HARANA GEOPARKEAREN BIHOTZEAN

Euskal Kostaldeko Geoparkeak interpretazio gune berria du,
Lasturko bailarari eta Karstaren munduari eskainia



Lasturko interpretazio gune berriaren inaugurazioarekin amaiera borobila eman dio Geoparkeak Europako Geoparkeen Astearen seigarren edizioari. 50 bat lagun inguratu ziren gune berria eza-gutxera eta Hector Fano geologoak eskainitako ibilbide geokultural interesgarriaz gozatzen. Lasturko haranak dituen ezaugarri geologikoez eta Lasturko harriaren garrantziaz mintzatu zen Fano.

Baserriak, haitzuloak, ura, kareharria eta zezenak dira Lasturko protagonista handiak

Lasturko aterpetxearen beheko solairuan kokatua, interpretazio gune berri honek Geoparkearen bihotzean dagoen Lasturko haran ezkutua hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Testu, argazki eta ilustrazioen bitartez, Lasturko historia eta tradizioak, harriarekiko duen lotura estua, Karstaren mundua eta ezaugarri geologiko bereziak edota bertako bizimodu eta ohiturak deskubritzeko aukera izango du bisitariak. Informazio hau guztia euskaraz, gaztelaraz, frantsesez eta ingelesez dago. Halaber, bisitariak Karst, Geoparkearen altxor ezkutatuak ikus-entzunezkoa ikusteko aukera du bertan.

Irailaren 15era bitartean, egunero dago zabalik 10:00etatik 14:00etara. Irailaren 15etik aurrera, asteburu eta jaiegunetan bisitatu ahal izango da, ordutegi berean.

900 MARRAZKI AURKEZTU DIRA BALEAREN BILA LEHIAKETARA

Balearen eta, oro har, espezie bizidunen ezagutza eta
sentsibilizazioa haurren artean sustatzea izan du helburu

Geoparkearen Asteak protagonistarik izan badu, Geoparkeko haur eta gaztetxoak izan dira, ez bairik gabe. “Balearen bila” goiburupean, lehen hezkuntzako ikasleei zuzendu zaie marrazki lehiaketa, 6 eta 12 urte bitartekoei. Haur eta gaztetxoek bikain erantzun diote deialdiari eta sormen eta irudimen handiko marrazki mordoa jaso dira; guztira, 900 marrazki. Mila esker guztioi parte hartzeagatik.

Guztien artean onena, **Garazi Irizar** zumaiarraren marrazkia izan da. Halaber, saria jaso dute Martin Ulazia mutrikuarrak, Mikel Gonzalez debarrak eta Malen Larrañaga oikiarrak. Zorionak!



GEOPARKEA OFRECERÁ UN CURSO DE VERANO DE LA UPV/EHU SOBRE GEOLOGÍA Y MONTAÑAS

Se desarrollará del 1 al 3 de septiembre en el Palacio Miramar de Donostia

El Geoparque de la Costa Vasca estará presente en la 35 edición de los Cursos de Verano de la UPV/EHU y ofrecerá un curso bajo el título **“Montañas y geología: una mirada diferente sobre los paisajes montañosos y el alpinismo”**.

El curso se plantea como un lugar de encuentro entre estudiosos, aficionados y profesionales de la montaña. Se transmitirán los conocimientos necesarios para interpretar los paisajes montañosos más conocidos desde un punto de vista diferente, respondiendo así a grandes interrogantes sobre su origen, evolución y la cantidad de información que guardan. Constará de dos jornadas teóricas y una de campo que se desarrollará en el Geoparque de la Costa Vasca.

El curso contará con profesores de amplio reconocimiento a nivel estatal en el ámbito de la geología y el alpinismo: el investigador y alpinista Jerónimo López, el alpinista José Carlos Tamayo, el geólogo y alpinista Luis Carcavilla, el director del Geoparque de Sobrarbe, Ánchel Belmonte, y Asier Hilario, Director Científico de Geoparkea.

Más información y matrícula en la web
uik.eus



El valle de Ordesa y Monte Perdido
(Ánchel Belmonte, Geoparque de Sobrarbe)

TRIKITIXA DOINUEK JANTZI DUTE FLYSCHA

Kepa Junkerak eta Sorginek Marea Zumaian kantaren eta bideokliparen aurkezpena egin dute Geoparkearen Astearen baitan

Kepa Junkera trikitilari bilbotarraren Maletak disko berrian aurki daiteke Zumaiari eta flyschari eskainitako kanta. Hitzak Jon Maia bertsolari zumaiarrarenak dira. Bideoklipa Algorrin eta Itzurungo hondartzan drone batekin airetik grabatu zuten iragan apirilean. Ikusi bideoklipa QR kodearen bitartez:



ITZIARKO TALAIA, BALEA BEGIZTATZEKO

Deban, Mendatako puntan, talaia baten arrastoak aurki ditzakegu

Balearen arrantza Erdi Arotik jar-duera garrantzitsuenetakoa izan zen euskal kostaldean. Inguruko herrien artean egiazko lehia izaten zen balea nork harrapatuko, eta itsasoan zeta-zoea bistaratzea zen lehen urratsa lasterketan aldea ateratzeko.

Itziarko Talaia hau Mendatako portuari lotua zegoen. Itziarko biztanleek eta Itsaspeko baserriek abantaila txiki bat izan zezaketen dorre honetako seinaleak ezin baitziren bistaratu Deba, Mutriku eta Ondarroako herrietatik.



Geoparkeak sustatuta,
indusketa lanak egin dira bertan

GEOPARKEA ESTRENA DOS NUEVAS VISITAS GUIADAS

El acto de presentación de la nueva temporada de visitas guiadas tuvo lugar en el majestuoso claustro de la iglesia Santa María de Deba



(Foto: Jabi Leon)

Geoparkea ha renovado su Programa de Visitas Guiadas y ha incorporado dos nuevas propuestas que permitirán conocer y descubrir diferentes aspectos culturales del Geoparque. La primera de ellas es la denominada **Pueblos del Geoparque**, que dará a conocer el patrimonio marítimo y cultural que poseen los municipios de Mutriku, Deba y Zumaia. Cada visita se desarrolla en uno de los tres pueblos, con un recorrido con el que descubrir su historia así como su amplia cultura marítima ligada al mar, visitando los edificios y monumentos que albergan sus cascos históricos.

Se pueden realizar las reservas online en geoparkea.com

La segunda propuesta, **Lasturko plaza**, está dirigida al público infantil y familias. Durante la experiencia, las familias visitan el antiguo molino, participan en un divertido taller de talos y, para terminar, se reúnen en la encantadora plaza de Lastur para disfrutar de los juegos tradicionales vascos: carrera de chingas, sokatira, recogida de mazorcas, carrera de sacos...